

## **Behorlegiko eskola publikoan (1931-1938)**

E.: zenbat urtetan hasi zira eskolan, Jeanne?

J.: gure denboran bost urtetan joaiten gintxun eskolaat, eta hamabi urtetan gelditzen, bena guk anitz uts iten gindixin eskola zeait in bear zelaik etxean, denbora hetan ia uldatzen ahal zien leku guziak ia uldatzen zitxun herri untan e, iten gindixin ogia, artoa, betarraba, nik dakita besteik ze, pautxa, aste bat beden itots-emaiteko egoiten gintxun etxean, eskola uts iten, ez zuxun obliatu arrunt ordian.

E.: ta etxetan ez zen tresnaik.

J.: e? Ta bear zuxun behiak uztarrarian, ta charruean jende at ta behien aitzinean ta geo mando edo bestenez beste bei pare at, hemen maldaegi baita, hara, gero guk, ara, eskola, ene aitak erraiten zixin eskola sala triste at gindiela, denbora hartan, eta errint eta errientsea jiten zienek galditen zutela kanbioa, jin orduko, ta gero kanbiamen ua ukaiten zutela eguerriz edo, domiasaindurez edo, noizpait, haurrendako ez zuxun un ua, bixtan dena, hara, gu hiru bagintxun, certificat-eko presentatu ginenak, iru neskato gintxun, ta hiruek ukan gindixin, bana guk xantza ukan gindixin errientsea bera ukan baigindien bi urtez, hara.

E.: ziek clase unique zinezten?

J.: ba, ba, ba. Ba, ba.

E.: zenbat aur zinezten?

J.: erranen duta? Hoita amar bat beden ba, ene aitak erten zixin oai zen... Hain denboran erten zixin, oai den bezenbat etxe kusi ziela hak joaiten, ez zelakotz segidaik etxetan, bena guk e gauza bera erten al dixiu, e! Frango etxe kusi ixiu joaiten gure denboran, arrazoiñ orrengatik.

E.: urruntasuna?

J.: e?

E.: urruntasuna?

J.: ta ez bada neore, gaztia ez bada plantatzen etxian, xaharrak joan dienian, gero, saltzen duxu edo...

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna  
Alexander Artzelus Muxika  
Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy  
Doktorego-tesia Gasteiz, 2021  
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila  
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa  
Letren Fakultatea  
UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.  
Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala